



BIZKAIKO ELKARRERAGINGARRITASUN-PLATAFORMA

Dokumentua – Sarrerako/Irteerako datuak

Zerbitzua: Familia ugariaren tituluak kontsultatzea



Familia ugari baten tituluari buruzko informazioko web zerbitzuak bide ematen du familia ugari baten tituluaren informazioa lortzeko, bai titularraren/onuradunaren IFZtik hasita, bai haren izen-abizenetatik eta jaiotegunetik hasita.

Zerbitzua Eusko Jaurlaritzaren Familia Ugarien Erregistroarekin konektatuko da; izan ere, erregistro horrek dauka datuak finkatzeko eskumena.

Zerbitzuak eskatutako datuak: hauek dira kontsultatu nahi den pertsonari buruz gutxienez ere eman behar diren datuak:

- **Dokumentazio-mota + Dokumentazioa:** kontsultatu nahi den pertsonaren dokumentazioa edo
- **Izena:** kontsultatu nahi den pertsonaren izena
- **Lehenengo abizena:** kontsultatu nahi den pertsonaren lehenengo abizena
- **Bigarren abizena:** kontsultatu nahi den pertsonaren bigarren abizena
2.Abizena aukerakoa da atzerritarrentzat.
- **AutonomiaErkidegoarenKodea:** adierazi zein autonomia-erkidegotan dagoen kontsultatu nahi den familia ugariaren tituluua. Autonomia erkidegoen INE kodeak erabiliko dira. Derrigorrezkoa. Kasu honetan haren balioa **16** izango da (EAEn kodea)

Zerbitzuak informazio hau itzuliko du:

- **Familia Ugariaren Tituluaitzultzea** (derrigorrezkoa, errakuntzarik ez badago):
AutonomiaErkidegoarenKodea: adierazi zein autonomia-erkidegotan dagoen kontsultatu den familia ugariaren tituluua. Autonomia erkidegoen INE kodeak erabiliko dira. Derrigorrezkoa
 - **TituluZenbakia:** Familia ugariaren tituluaren kodea. Derrigorrezkoa.
 - **Kategoria:** Familia ugariaren kategoria. Izan daitezkeen balioak:
O (OROKORRA) edo **B** (BEREZIA). 2003 baino lehenagokoak izan eta baliokidetasunik ez duten tituluatarako:
L (Lehenengoa), **B** (Bigarrena) edo **H** (Ohorezkoa).
 - **IndarrekoTituluua:** Egiaztapenaren emaitza daukan elementua. Balio hauek har ditzake:
 - **B** tituluua dagoenean eta indarrean dagoenean
 - **E** titulurik Ez dagoenean edo indarrean Ez dagoenean.
 - **LuzapenData:** Familia ugariaren tituluua luzatu zen data. Aukerakoa. Eredu honen formatua **UUUU/HH/EE** izango da.
 - **IraungitasunData:** familia ugariaren tituluaren baliozko data edo indarraren data. Derrigorrezkoa. Eredu honen formatua **UUUU/HH/EE** izango da.
 - **Seme-alabenKopurua:** kontsultatu den titulupeko familiaren seme-alaben kopurua. Derrigorrezkoa.
- **Onuradunen Zerrendaitzultzea:** kontsultatu den familia ugariaren titulupeko onuradunen zerrenda dauka. **Onuradun** itzultze bakoitzeko, datu hauek itzuliko dira:
 - **DokumentazioMota:** Balioak hauek izan daitezke: **IFZ, AIZ, NAN** edo **Pasaportea**. Aukerakoa. Derrigorrezkoa, Dokumentazioa eremua badator.



- **Dokumentazioa:** agiriaren zenbakia, Dokumentazio Motaren arabera. Aukerakoa. Derrigorrezkoa, Dokumentazio Mota eremua badator.
- **Jaiotza Data:** Onuradunaren jaiotza-data. Aukerakoa. Eremu honen formatua UUUU/HH/EE izango da.
- **Izena:** familia ugariaren tituluaren onuradunaren izena. Aukerakoa.
- **1.Abizena:** familia ugariaren tituluaren onuradunaren lehenengo abizena. Aukerakoa.
- **2.Abizena:** familia ugariaren tituluaren onuradunaren bigarren abizena. Aukerakoa.
- **Titularra.** Adierazi onuraduna familia ugariaren titularra den edo ez. Balioak hauek izan daitezke: **B** edo **E**.

Taulan (1. taula), familia ugariaren tituluak kontsultatzeko zerbitzuak itzultitako egoerak deskribatzen dira:

Egoeraren kodea	Egoeraren deskripzioa	Noiz itzultzen den egoera hau
0	Badago familia ugariaren titulurik	Baiezko erantzunaren kodea: Familia ugariaren titulu dago.
1	Ez dago inor erregistratuta titularraren datu horiekin.	Ez dago inor erregistratuta titularraren datu horiekin, familia ugariaren ziurtagiria duenik.
2	Ez dago familia ugariaren titulurik	Kontsultan adierazi den familia ugariaren titulu ez dago erregistratuta.
3	Pertsona ez dago lotuta familia ugariaren titulu horrekin.	Familia ugariaren liburuan ez da ageri datu horiek dituen pertsonarik, ez titular gisa, ez onuradun gisa.
4	Titulu okerraren formatua	Familia ugariaren tituluaren formatua ez da zuzena.
5	Emandako datuekin badira familia ugariaren liburuaren titular edo onuradun bat baino gehiago.	Adierazitako datuekin badira familia ugariaren liburuaren onuradun edo titular bat baino gehiago. Kasu hau gerta liteke kontsulta hauen arabera egiten denean: Izena, 1.Abizena eta Jaiotza-data. Konponbidea tituluaren zenbakia ere bai adieraztea izango litzateke.
6	Familia ugariaren titulu iraungia	Kontsulta egiten den unean familiaren titulu iraungita dago.



BERTSIOAREN KONTROLA

V00	Jatorrizko bertsioa	2018/05/21
-----	---------------------	------------

GLOSARIOA